



AMAIA ZENTROA  
Benito Perez galdos z/g  
01002 GASTEIZ  
araba@bertsozale.com  
945010505



**Bertsoak duen balioa da  
kontraesankorra, nik uste  
edo haizeak eramaten du  
edo epaitzen zaituzte**

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

# Berripapera

## MADRILERAINO BIDAIA

Behin bertsolarien adierazpenak jaso, digeritu eta hilabete batzuen buruan Madrileraino bidaia egin zuten, otsailaren 24 eta 25ean, epaituak izan ziren bi arabar bertsolari gazteak, Jagoba Apaolaza eta Iker Pastor. Azkenik, auziperatu guztiak bertsolariak barne, absolutuak izan dira.

Istorio hau, 2012ko ekainaren amaieran hasi zen, Gasteizko Alde Zaharreko ZAHARRAZ HARRO jai herrikoietan. Preso eta iheslarien senideei omenaldia zegoen deitua, alde zaharreko kaleak lepo beteak, auzoko haur, gazte eta helduek, senideek, bertsolariak eta elektrotxarangako musikariek alde zaharra aldenik alden betetzen zuten. Iker Pastor eta Jagoba Apaolaza bertsolariak beste hamabi pertsonarekin batera epaituak izan dira ekimen honetan parte hartzeagatik.

Bertsozale Elkarteko kideok iritzi eta pentsamendu librearen aldekoak gara, libreki adieraztea eta errespetatua izatea ezinbestekotzat jotzen dugu. Bertsolariak libreki sortu behar du. Adierazpen askatasuna urratu eta euskarazko kulturgintza zuzenean erasotzen duela uste dugu. Larrizat jo dugu bertsolaritza bezalako kultur jardun batengatik kartzelaratzeko arriskua izatea, epaile baten aurrean deklaratu behar izatea, epaituak izatea.

### BERTSOLARIAK LIBRE

Bertsolariak Libre izeneko elkartasun ekimena berrabiarazi zuten Arabako bertsozale eta bertsolari talde batek. Orain dela hiru urte sortu zen ekimen hau, honen antzeko kasu baten eskutik, Oihane Perea eta Josu Ormaetxea deklaratzera joan behar izan zutenekoa. Arabako Bertsozale Elkartea bat etorri da Bertsolariak Libre ekimenarekin.

Bertsolariak Libre ekimenak bi deialdi burutu ditu Gasteizen. Bata, otsailaren 20an Gasteizko Gaztetxean, bertan Bertso jaialdi bat antolatuko zen eta Euskal Herriko hamazortzi bertsolariak parte hartu zuten. Bi belaunaldi arteko bertsolaritzaaren historiari birpasa, bertso sortak, inprobisazio musikatuak, bertso saioa eta bertso rap emanaldia izan zuten euren gozamenerako gerturatu ziren 350 lagun inguruk.

Otsailaren 22an, larunbata, Gasteizen bertsozaintzarekin horren lotua dagoen Aihotz plaza bertsolari eta bertsozalez bete zen. Ageraldi masiboa egitea zen helburu eta hala izan zen, Bertsolariak Libre lemadun koloretako kamisetan jantzita joan ziren 150 bat kide. Bertan, Igor Elortzak eginiko “Nik ere kantatu dut... eta kantatuko” bertso sorta aho batez kantatu zen.

Bertsoa aske, kultura aske.



# Kuadrilla artekoA

Saioz saioen gozamenen:



Hau ez ahaztu:

Martxoak 21 Amurrion, Martxoak 22 Ametzagan, Martxoak 29 Aramaion.

Eta apirilaren 5ean, **kristo guztia** Agurainera!

Bertsoak, jana, edana, musika eta "lo" egiteko aukera Aguraingo aterpean.

Bidali mezu bat bazkarian apuntatzeko (parte hartu duzuen guztiak gonbidatuta zaudete)

Info guztia: [www.bertsozale.com/araba](http://www.bertsozale.com/araba)

**11:00etan TXOSNAN**

Hitzordua

**ANDRAMARI PLAZAN 12:00etan**

bat-bateko eta idatzizko taldeekin poteo ezberdinak herri osoan zehar... Andramari Plazatik hasita.

**15:00etan BAZKARIA ANDRAMARI PLAZAN**

(Eguraldi txarra eginez gero Institutuko kiroldegian) bazkarian (12€) izena emateko deitu Arabako bertsozale Elkarteak 675 707 971

**17:00etan PUNTUKA NAHI DUTEN**

**PARTE HARTZAILE GUZTIKIN**

**18:00etan KONTZERTUA: GIBELURDINEK**

**20:30ean BERTSO- PUNK**

[www.bertsozale.com/araba](http://www.bertsozale.com/araba)



# Batzar Orokorra



Arabako Bertsozale Elkartearen batzar orokorra Urtarrilaren 18an izan zen Agurainen. Bertan Elkartearen aurreko urteko memoria eta egitasmoa eta diru kontuan aurkeztu genituen. Ahobatez onartu ziren:

Transmisioan transmissioko erpin guztiak lantzeko ahaleginean jarraitu dugu: Ikastetxeetan, bertso-eskoletan, barnetegi eta udalekue-tan... Arabako bazter guztiak bertsoz busti ditugu, haur, gazte zein helduek oasian bainu freskagarria hartzeko. Mapari eutsi diogu eta eskualde guztietara heldu da ura. Euskalduntzen ari diren helduak ere ez dira libratu. Gazteengan eragiteko potentzial handia sumatu dugu eta horretan sakontzen ari gara institutueta tailer, saio eta bertso-eskolen bidez.

Berezko dinamika bultzatu eta 2013an handiagoa izan da berezko dinamika Elkarteak bultzatu edo lagundutako saioren kopurua baino. Urte txapelketeroa izan da oso, baina behin hori amaituta parte-hartzea helburu harturik lehiarik gabeko Kuadrillarteko freskoari ekin diogu. Bidea egiten ari gara, baina badirudi jendeak gustoz hartu duela jolaserako gonbitea.

Kanpo komunikazioa gure puntu fuertetako bat izan da berriz ere, iaz emandako jauzia sendotu dugu: Web gune propioa garatzen jarraitu dugu, hedabide-sare sozialetan ere lata ematen jarraitu dugu eta jarraituko.

Biharko ikerkuntza errazteko dokumentazio bilketari dagokionez, bide birtualetan zein partzelariatan aurkitu ditugun zera guztiak jasotzen jarraitu dugu, eta kolekzionisten sarea zabaltzeko pauso bat eman dugu bertso-eskoletako eta kuadrilla arteko bertso taldeetako ordezkarietako ikastaroaren bidez.

Txindurritegia martxan dago. Lan talde sendoa dugu, batzuetan gorputza baino handiagoak diren zamak bizkarrean eramatea tokatu arren, ahaleginerako prest. Aurten ere, hartz inurrijalearen bisita izan dugu, Gasteizko udala eta Arabako Foru Aldundiko agintariak estutasunak pasa arazi dizkigute, gure hitzarmenak xurgatu nahi izan dituzte eta. Dena den, aurrekontuak aurrera ateratzeko akordioetan salbatu dira gure hitzarmenak, berriz ere azken minutuan. Edonola ere finantziario propioan krisiak eragindako beherakada izan dugu eta aurrekontuan zulo estrukturala agertu da, denborarekin konpondu beharko dugula, gainerako herrialdeetako txingurriekin elkarlanean.

## Barnetegiak

Bertsoak baditu aurpegi gehiago, eta aurpegi txikiak izan arren, handi-handi egiten dute bertsolaritza Arabako umeek. Eta, horretarako, zer hoberik Arabako Bertsozale Elkarteak antolatutako bertso-barnetegi batera joatea baino?

Dena dela, aurtengo udaberrian... ez da **barnetegi** bat egingo, bi baizik eta egun berdinetan gainera! Apirilko oporraldian, **Gorbeialdeko** umeekin **Sarriara** bueltatuko gara aurtengoan ere 3 egunez, apirilaren 22, 23 eta 24an. **Aiaraldeko** haurrekin ordea, **Espejoara** joango gara hilaren 22, 23 eta 24an.

Oraingo honetan ere jabetuko dira herriko biztanleak bertso abentura heldu dela beren herrietara. Gure jolas, buila, oihu, irrintzi eta bertso doinu gozoz inbadituko ditugu... Eta agian, bertsotan ere hasiko dira gurekin, lotsa guztiak kenduta!

Hitzok animatu bazaituzte, oraindik garaiz zabilta eta etorri gurekin bertso-abentura eder batez gozatzeraz. **Martxoan zehar** eman behar duzue izena. **Informazio gehiago nahi izanez gero**, deitu Arabako Bertsozale Elkartera (945010505) edo idatzi [araba@bertsozale.com](mailto:araba@bertsozale.com) helbidera.



# ZERNAHI: BAINA NOLA. BAINA ZER DUNK HAU. NOLA ONARTU DAITEKE?



Mariano Raxoi bera etorri izana Kuadrilla artekora kantatzera, eta ez jaso izana Elkarteko zuzendaritza batzordearen eskutik lore sorta bat, edo ez dantzatu izana Kuadrilla artekoan parte hartzen duen hainbat eta hainbat artixtaren batek aurreku bat, edo ez prestatu izana sukaldari sueltoren batek berberetxo batzuk, bere galiziar jatorri exotikoa gogoan, edo ez jarri izana Amaia zentroan oroigarri plaka bat, dioena "Mariano Raxoi hemen egon zen, eta bere bedeinkazioa eman zion bertsoari", edo ez prestatu izana bertso-egun tematiko bat, adibidez "Mariano Raxoi eguna", Kursaalean, edo...

Zer, eta Errexalara bakarrik gonbidatu dute, jan eta kantatzera.

BAINA NOLA.

## AGENDA

### 2014-03-21, Amurrio

Arabako Kuadrilla Artekoa. Bertso-afaria. Bat-bateko taldeak: Ai zapotxin-Aiaraldea eta Bertxotxoak. Idatzizko taldea: Mitxoletak-Amurrio Ordua: 21:00 Lekua: Reforreko txakolin elkartearen txokoa

### 2014-03-22 Ametzaga

Arabako Kuadrilla Artekoa. Bertso-bazkaria. Bat-bateko taldeak: Zeledonon seme-alabak-Zalduondo eta Zabala eta estuak-Gasteiz. Idatzizko taldea: Marisoro Zalduondoko Euskara Taldea Ordua: 14:00 Lekua: Herriko elkarte

### 2014-03-22 Maeztu

Bertso-pilota Ordua: 20:30 Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña

### 2014-03-25 Gasteiz

"Bi bala" ikuskizuna Ordua: 20:30 Lekua: El Parral taberna Bertsolariak: Iñaki Gurrutxaga, Aitzol Barandiaran Parte-hartzaileak: Julen Goikoetxea, Xabier Etxeberria

### 2014-03-27 Gasteiz

Bertsokatu txapelketa. Finala Ordua: 20:00 Lekua: Gaztetxea Antolatzaileak: Kutxiko Tabernariak

### 2014-03-29 Aramaio

Arabako Kuadrilla Artekoa. Bertso-bazkari-desafioa. Bat-bateko taldeak: Unibertsolariak-Aramaio vs. Aramaioko Garratzak Ordua: 14:00 Lekua: San Martin eskola

### 2014-04-04 Gasteiz

Bertso-afaria Ordua: 21:00 Lekua: Larragorri Elkarte Bertsolariak: Arkaitz Estiballes, Jon Maia Antolatzaileak: Larragorri Elkarte

### 2014-04-04 Gasteiz

Bertso-afaria (Bertso paper lehiaketaren sari banaketa Lekua: Hala Bedi Tabernan. Bertsolariak: Antolatzailea: Medicus Mundi

### 2014-04-05 Agurain

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren festa: 11:00 hitzordua; 12:00 bertso-poteoak; 15:00 bazkaria; 17:00 Puntuka; 18:00 kontzertua: Gibelurdinek; 20:30 Bertso-punk Ordua: Egun osoa Antolatzaileak: Arabako Bertsozale Elkarte